

Pagoagako hiru anaiak. Hau da paotxa, hau!



Paotxak hiru orri ditu. Horregatik deitu izan zaio gu-rean beste hiru izen hauekin ere: hirusta (hiru ostu) hiruorri eta hiru-belar... Hirukoa da, benetan, sekula-belar eta frantzi-belar izenekin ere ezaguna bilaka zaiguna. Nik ez dakit, zinbuluka ederrak belaze don-tsu horren gainean emanak nituen arren, nolako gustua izango duen, ikuluan estimatua zela bai: jakitekotan, baserriko aziendek dakikete, bai behiek nahiz bigai ta bigantxek, ardi eta arkumeeek, eta baita txerriek ere... ez dio alferrik Tomas Agirrek *Errezildik Uztaro* liburuan: "*Txerrientzako pagotxa ebakitzen du agureak*". Gauden gaudenean, udazken uztasasoiari, ez du ez, garai txarra abuztuan ereindako paotxak. Uzta bikainarekin ere lotu izan baita, "*Hori duk paotxa, hori!*" esamoldean.

Baina, irakurle, ez nator paotxaz eta frantzi-belarraz kontuak argitzera. Hirubedar eta paotxarekin akordatu banaiz, hiru anai jator, halakoxe paotxa bezain zoribetekoak Arantzazun dauzkagulako abiatu naitaizu horrela. Bai baitakit, Amezketan bezalaxe, Hernanin ere 'paotxa' hitza aise erabilia zela. Begira, bestela, Txirritaren bertso-mutur honi:

*Zenbat naigabe sufritzen degun
bizi geranak lurrian,
ardi gaiztuak paotxa jaten,
onak gosiak larrian.*

Ez dakit, Txirritarenari helduz, ari 'gaiztuagoi' utzi zizkieten, hiruek ala hiruek, Hernanitik Goizuetara bi-tarteko belaze pagotxadirik ederrenak, ez nioke nik inori 'gaiztua' deitu nahi eta; baina bai, hiru arkume xalo gazte haiek, arkaztetan, Arantzazuko gosea no-zitzeko pronto etorri zirela honuntza, Aloña maldako,

Urbiako belazeetatik apartetxo dagoen pagotxadi eskaseko harkaitzarte honetara.

Hernaniko Urumea bailarako Pagoagan jaio eta ha-ziak, heziketa zailduarekin haziak baititugu Arantza-zun hiru anai, Fraile zintzo ta jatorrak, Arozenatar sendikoak: Joxe Mari, Enrike eta Luis.



Nik galdera bat edo beste zuzendu diedanean, hizkera errazean jaulki dizkidate hainbat kontu, laurogei urte beteak eta mugante dituzten frantziskotar presu bezain ondradu hauek. Lehenenak, Joxe Mari, laurogeita bi urte ditu martxoan; Enrikek, laurogei otsailean; hirurogeita hemeretzi beteko, berriz, Luisek azaroan. Euren jardun atseginetik apartatu dizkizuet gurasoei eta arreba-analei buruz esandako honako hauek, garbi adierazten baitute orain laurogei urteko giro baserrikoa:

Gure gurasoak, Pedro Arozena eta Dionisia Li-zeaga izan genituen: aita goizuettarra jaiotzez, ama, berriz, Pagoagan bertan jaioa: bederatzi seme-alaba ekarri gintuzten bizitzara. Bizitza labur-antzekoa, halere, hiru lehenengoek. Hiru zaharrenak alabak suertatu ziren eta hurrengo seiak, semeak.

Alabetatik zaharrena, jaio eta laister hil omen zen, Joakina izenekoa. Orduan, bigarrenari izen bera ipini zioten. Baina, hau hamasei urte zituela hil zen; gaisotasun larri batek eraman zigun sukaldetik. Hirugarren alaba, Kontxesi deitzen geniona, hogeita bat urterekin hil zen, buruko tumore baten ebakuntza egin ondoren.

Alaba zaharrena ez zuten ezagutu, beraz, sei anai mutikoez. Hiru arreba hauen ostean jaioko baitziren erreskadan sei anaiak: Ramon, Migel, Joxe Mari, Enrike, Luis eta Jose Manuel. Sei mutiletatik hiruk, etxean arrebak denak hil eta gero, Arantzazura joko zuten.

Arantzazura maldan gorako bidea Luisek, hiruotan gazteenak, hartuko zuen, 1951ko azaroaren 23an, hogeita lau urte bete zituenean, soldaduska bete eta gero. Arantzazuko basilika hasiberritan iritsi ere, beso-zustar indartsuak zekartzan goizuettar mandazaien seme gazteak. Hurrena, handik urtebete eskasera, Enrikek jarraiko zion, 1952ko uztailaren 6an. Eta azkena, inbiri puntuaren batek jota, Joxe Mari helduko zen mendian gora, data hain seinatua, 1956ko urtarrilaren 1an, urteberriarekin bizitza berria hasteko asmoz. Ziur naiz, gure garaietan bezala, orduan ere, bezperako urte-zaharrean, Fray Kaxianok han abestuko zuela, bere urteroko bertsoa:

*Urteak joan eta
urteak etorri,
gaur urtezaharra eta
bihar urte berri...*

Hara bada, Pagoaga baserrian, lau urte eta bi hilabeteren buruan, sei mutil gaztetatik hiruk, gazteenetik abiatuta, erreskadan, Arantzazura jo zutenean, zenbateko entresaka eta erreten sakona geldituko zen hangoxe bailaran. Tsunamiak jota, inondik ere, hango malkar inguru haiek...!

Baina, tira, guk gaurko gure mundu abiada laisterreko honetatik begiratuta, halatsu juzga eta epaitu genezakeena, ez dirudi hain desegokia iruditu zitzaie-

nik guraso zaildu eta santu haiei: errosarioak eta beste errezotan onduak, elizarako bidaia igandekoak eta garizumako kalbarioak lagun, beste zentzu batekin eta sakoneko gustu batez onartzeko baratzetxe landua prestatua zuten nonbait barruan. Begira, nola kontatzen diguten hiruen artean:

Gure ama fedean hazi eta hezia zenez, oso pozik hartu zuen hiru seme Fraile izatea; aitari berari ere gogoko zitzaion semeek bide hori hartzea. Aitak, egia esan, ez zuen eskolatzeko erarik izan garai hartako beste askok bezalaxe: Goizuettako eskola ez zuen zapaltzerik izan. Bere lantegia, mandazaintza izan zen, lan gogorra eta latza. 1965ean hil zitzaigun, udazkenez, azaroak 21 zituenean (Luisek 38 urte beteko zituen egunean justu).

Ama, berriz, auzoko mutiko eta neskatoei eskola erakusten jardun zen auzoan: berrogei urtez jardun ere, 1914tik 1954ra. Orduan ohi zuten erara: irakurtzen, idazten, kuentak ateratzen, puntua egiten eta beste lan beharrezkoenetan gazte haiek trebatzen saiatu zen. Jakina, dotrina eta kristau-ikasbidea ere arreta handiz eta axolaz erakusten ahalegintzen zen. 1963ko udamian, abuztuaren lehen egunean joan zitzaigun, bertutez betetako emakumea.

Geuk ere dotriña bi hizkuntzetan ikasi genuen hasieratik azkeneraino, euskaraz eta gaztelaraz, alegia. Bizitzan zehar asko lagundu digu hura ikasteak. Gure Jainko onak bere bideak daukanez, hiru anaiok soldaduska egin eta gero Fraile bizitza aukeratu ahal izan genuen.



Ordukoak orduko, gatozen orain Arantzazura. Sasoisasoiko hiru gazte iritsi ziren Santutegiko komentura, duela berrogeita hamar urte justu, hirugarrena. Frantzi-berde gozoena nola, halaxe edertu izan dute fraileon bizitza xumearen baratzea, hiruen artean, desafio handirik gabe, egia: bakeosoak inon badira, hiru anai patxada oneko aukeratzekotan, hauexek aparta daitezke, apartatzen hasita.

Jarrai diegun, banan banan, 1951ko azaroaren azken aste hartatik. Aspaldiko ohitura genuen hemen Arantzazun, azaroaren 13tik 22ra gogarte-astea egitekoa. San Diego anaiaren gauean abiatu eta Santa Zezilia goizean amaitu: urteroko data jakinak izanik, oroimen ugari ditu gutako bakoitzak egun horiei fidelki iltzatuak. Aste horixe pasa eta bihararmunean jaso zuten fraileek paotxaren lehen ostoberdea, Luis Arozena gaztea, Pagoagatik zetorrena.



Hogeita lau urte estrainatu-berriekin etorri zen. Fraile bizitzan, urterik gehienak, hogeita hamabost, Erroman egin zituen hainbat lan mota eginez. Baina, ez diezaiodan aurea hartu: berari utziko diot, patxada ederrean konta diezagun:

Arantzazura iritsi eta bertan egin nituen hogeita bi hilabete lehenbizikoak, nobiziadura joan aurrekoak. Lan ezberdinetan jardun nuen, baina gehien jostundegian, erropaz arduratzen zen fraileari laguntzen, eta sukaldean ere bai, lan asko izaten baitzen han otorduak prestatzen eta garbiketarak egiten. Eta, bidenabar, beti ere, ikasi eta ikasi, ordura arte amaren lanak izan zirenak gure etxean, jostura eta sukaldaritza, bada, inoiz egin beharko nituela eta, baita ongi etorri ere gero, orduan ikasia.

Zarautzen egiten genuen nobiziadura eta haruntza iritsi nintzen ni ere 1953ko udazkenerako: tarteka, baratzen egiten nuen lan: hantxe eginkizunik gehiena. Handik urtebetera, profesatu orduko, hiru aste eskas pasa eta, Donostiako komentura bidali ninduten. Han, sei hilabetez, sukaldari jardun behar izan nuen. Esan gabe doa, Arantzazun ikasia oso ondo etorri zitzaidala. Gaineratiko urteak, ia doenerdia, sakristian lan eginez pasa nituen.

1960an, Erromarako destinua jaso nuen eta urriaren 11an, hogeita zortzi orduko bidaia eginez han sartu nintzen erdi despistatuta. Erromako Kuria nagusian, hogeita bost urte bete egin nituen sakristautzan. Ondoren, Antonianum Unibertsitate Pontifiziora bidali ninduten. Bertako ekonomia lanen arduradun, eta 'Antonianum' errebista eta beste liburuak bidali eta berauen administrazio lanen kargu emango nituen beste hamar urte. Ahalegindu nintzen ahalik eta ongien betetzen, Erroma beti Erroma baita...

Erromako urteak, ez dago batere zalantzarik, ongi baino hobeto bete zituela gure Luisek. Ez dakit Erromak zenbateko kutsua utzi izan dion berari, ez zaio hainbestekorik antzematen, egia esan; baina ziur nago Pagoagako giro natural eta sano estimagarri horretarik ikutu franko zabalduko zuela hango italiar nahiz beste hainbat herrialdeetako ikasle eta fraileengana. Berak italiara aise menderatu zuen: ez dut uste euskararik inori erakustea lortuko zuenik.

Baina, hori bai, gure euskal ikasleak, han teologia nahiz pedagogia ikasketak eginez berarekin topo egin eta bertan elkarbizitza egiteko zoria izan zutenek, gloria eta alabantzak besterik ez dituzte jaulki ohi, Luigi (hala deitzen zioten italiaraz) anaiekiko. Han fortunatutako hemengo fraileek bezala han bertakoek, biziki estimatu izan zuten gure Luigi zerbitzala. Eta, handik bueltan? Utz diezaiogun berari kontatzen:

Erromatik bueltan, Madrilera bidali ninduten, Cisneros etxera, bertako Liburutegi Nagusian lan egitera. Liburutegi jantzia izanik, bertako liburuaren fitxategia txukundu, landu eta eguneratu behar izan nuen: 20.000tik gora liburuaren fitxak bete eta egin nituen. Lan hori amaitu orduko, Euskal Herrira deitu ninduten. Donostiako Komentuan behar nindutela eta, han sakristautzaz arduratu nintzen eta etxeko ekonomia tajuz eramaten jardun nuen 2001eko uda partean, Arantzazura ekarri ninduten artio.

Aipatu lan hauek egiteko, pentsa leike, Pagoagako seme-alabetako zortziak, bertako eskola baino zeozer gehiago ikasi beharko zuela, ezta? Hala da, bai: amaren maistratzak jakituriaren eskizian ibiltzeko zaletasuna erantsi zion nonbait Luigi anaiari. Mekanografian Diplomatu dugu, Hazienda Administrazailtzean ere Diploma du eta, noski, baita txofertza berezia ere: Erromako kaleetan, 'begiak tapatuta ere' txofer ibiltzeko gauza zela zioten bertan ikasketak egindako gure Fraile gazteek.

Baina, esan behar dut, zintzo ezagutzen dudalako, hori dena, denbora eta beta tarte bakoitza ongi aprobetxatuz ikasitakoa dela. Bestela, ez genuen paotxaren lehen orria bera izango: denborapasa bekatu larria dela ikasi genuen baserri eta sukalde (aspaldiko?) haietakoa baitugu Pagoagako zortzigarren semea. Esango banizue, ordenadorea nik baino askoz hobeto eta trebeago 'manejatzen' duela...!



Artista hutsa da gure Luis, Erromatik, lagunontzat, 'Luigi' izena eta jakinduria franko ekarri duen hernaniar jatorra.

Luis lehenena, eta Enrike bigarren etorri zena. Pao-txaren erdiko osto berde pottoloa: bi ertzetakoak haizexka ferekak dantzaraziko baditu ere, erdikoak txorten finkoagoa duela dirudi, fijoagoa. Halaxe egokitu zaio Enrikeri Fraile bizitzan ere: lana egonkorragoa, baina ez geldi egon beharrik batetxo ere. Herriz herri, etxez etxe, eta baseriz baserri, Arantzazuko bisitari izatea fortunatu baitzaio... zenbat urte luzez? Utziogun berari, etorrera eta lanbide hain monotonoa kontatzen:

Luisen atzetik, hurrena ni iritsiko nintzen, 26 urte-ekin. Luis udazkenean etorri zen bezala, nik hurrengo udan utziko nuen Hernani, uztailearen 6an, San Fermin bezperan, ondo gogoan daukat eta, sanfermin festa zalea ez nintzen arren. Arantzazun beteko nituen lehen hamalau hilabeteak, harik eta Luis anaiarekin batera, 1953ean, Zarautzen nobiziadua egitera joan nintzen arte. Denetariko lanak egokitu zitzaizkidan bien bitartean, baina gehiena, Gomistegirako bidea zabaltzen eginda-koarekin akordatzan naiz: bide horren ertzean dauden porlanezko lauki koxka horiek egiten makina-bat saio egin genituen.

Nobiziadura bukatu, profesa egin eta Bermiora bidali ninduten. Bertan, etxeko lan gehienetan txandatu nintzela uste dut: batean sakristau, bestean baratzen, edo sastrean... 'hermano' morderoska ginen eta txandaka jardun genuen, harik eta handik hamalau hilabetera, Arantzazuko sakristautzan sartu ninduten arte. Hamar hilabete egin nuen Arantzazuko sakristautzan.

Eta, hemen dator lanbide fijoan aspertu gabe iraun izanaren meritua eta iraupena. Hara bere hitzetan:

Eta 1956ko irailean, Arantzazuko gure Ama Birjinaren bederatzurrrena eta festa egun haundia pasa orduko, irailaren 11an (aurten ospatu baitugu 50. urteurrena) gure aita Probintzialak, nik bezalaxe 50 urte bete dituen Fray Antoniori, egun berean sakristautza eskaini zion, eta niri, trukean, langintza berri betebeharrekoa seinaltatu zidan: Arantzazuko errebitak etxez etxe ko-bratzen ibili beharko nuela, alegia, hemengo inprentako Arantzazu, Misiones Franciscanas eta San Antonio de Padua (SAP). Sasoi hartan ez zegoen banketxe eta Kutxetan kontu korrontea



izateko ohitura handirik eta, kobrantza egingo bazen, erraztasunak ematea hobe.

Arantzazu hileroko aldizkaria, gehienbat hemen Euskal Herrian zabaltzen zenez eta denez, nire lana, propio, gure herri euskaldunetan zabalduko zen. Gustura hartu nuen. Eta, hala, urterik gehienak, berrogeita hamar aurten, Arantzazuko aldizkaria, baina ez bera bakarrik, beste biak ere gogoan ditudala, hiruek zabaldu eta kobrantza egiten ibili naiz.

Arantzazuko Fraile motorduna, ikusia izango duzue errebista nahiz egunkarietan, Fraile jantzitako motorzale kaskoduna, hainbat baserri eta etxetan Arantzazuko bisita franko eginga, Jaunaren eta Ama Birjinaren mezua zabaldu nahian saiatu dena. Berari ez zaio gustatzen bere kontu hauetaz sueto jardutea, baina tiraka-tiraka, atera dizkiot datu batzuk, bere urteetako jardunaren isla ttiki bat eman diezaguketanak:

Bueno, ez da horrenbeste haizatzekoa, baina, kontuak ateraz gero, bada, 117 herritan ibili naizela esan beharko nuke kobrantza lanetan. Gipuzkoa aldean dira gehienak: noski, euskera ere hemen egiten da gehien, eta Arantzazurekiko lotura hemen da estuena. Hirurogeita bederatzi herri bisitatu izan ditut urtero, ahal nuen bestean. Bizkaian ere bada mordoska ederra: 32 herri, euskara egiten dutenekoak ia denak, Gipuzkoa alderakoak edo mugante ditugunak, eta Gernika nahiz Bermio aldekoak. Nafarroan, 16 herritako baserri franko. Baserriak baitira asko eta asko, eta gustu osoz bisitatu izan ditudanak. Denera, 5.300 familia inguru, Arantzazuko fraileon izenean bisita jaso dutenak.

Bejondeizula, Enrike!


Eta goazen, aurreko bien aurrekoa izanik ere, bien segidan etorri zen Joxe Mariren bila. Bera, etxeko sei mutiletan hirugarrena, hiru arreben ondorengo seigarrena, eta gure 'paotxaren hirugarren ostoa'. Ez diot galdetu zerk ekarri zuen Arantzazura. Baina bere kontaera xotil apalean, irrifar ttikia antzematen zaio nonahi:

Gure gazte denbora nahikoa gogorra izandu zen. Espainiako gerra hasi zenean 12 urte nituen eta mutil gazte denak gerrara eraman zituzten. Eta, ni bezala besteak, 12 urtetik aurrera, jotakean, lanean hasi beharra izan genuen. Gero, soldaduska joan aurretik, orain 60 urte, txofertza ikasi nuen. Soldadutzan eta geroztik, txofer ibili naiz denbora gehienez. Eta lana bakarrik ez, gose ederrak ere pasa genituen: ogirik ez zegoen, oliorik ere ez, azukrerik ere ez... errazionamenduan ematen zuten apurtxo bat besterik ezer ez; eta ez det esan tabakoarena, erretzaileentzako gosea baino okerragoa; hori ere errazionamenduan, oso gutxi.

Belar motxean hazitakoak gara, bail

Belar motxean, koanto! Lana, eta lan elkoraren motza, beste bi anaiek baino zutarragotik probatu zuten Joxe Marik. Kamioi txofertzan, bidaia luze asko, bidean beste kotxerik gurutzatu gabe ere egindakoa da sasoi haietako errepide hala-moduzko estu konpondugabe eta koskadun haietan barrena. Bizitzaren paraderoari begira, gerokoaren eta etorkizunari buruzko galderak ere egin behar eta... Honela darraio berak:





Eta gero zer? Hogeita hamaika urtetara iritsi orduko, bi anai ezkontuta eta beste bi Fraile frantziskotar Arantzazun, eta nik ere erabakia hartu behar eta, ez gutxi kostata baina, Arantzazura joatea pentsatu nuen. Eta pentsatu bezala, haraxe iritsi nintzen urteberri egun berezi batez. Jainkoari eskerrak! Mila aldiz eskerrak!

Hogeita hamaika urterekin etorri nintzen Arantzazura Fraile. Geroztik, hementxe, berrogeita hamar urte pasa dira. Lehenbizi, Gomistegi baserrian, hamabost hilabetez. Gogoan daukat 1956ko elurte eta jelate gogor hura: otsail osoa elurpean pasa genuenekoa, pinudiak, haundi ta txiki, denean ihartu zirenekoa. Hamabost hilabete Gomistegin eta gero Zarautzera, 1957an, nobiziadua egitera. Urte eta erdi Zarautzen. Eta geroztik, hementxe, Arantzazun.

Kontatzerik balego, bai kopuruz eta bai zabaleraz, zenbat eratako lanak egin dituen Joxe Marik! Oñatiko hainbat laguni galdetzea nahikoa, aspertu gabe ko jardunean, amaitu ezinean aritzen dira ia hogeita hamar urtetan, bertako kaleetan egunero ikusi duten lagunzaharrak. Baina, ez, berari utziko diogu, xumeago eta apalago, berea duen maleziatxo irifar ttikiz gordeta, konta diezagun:

Inprentan sei urte egin nituen aurrena, Nobiziadutik etorriberrian, 1958tik 1965ra, inpresoraren kargu. Gero, mandatar, eguneroko enkarguak egiten, igande eta aste, egunik hutsegin gabe, furgonetarekin. Hala, hogeita bederatzi urtetan: 24.000 buelta egin ditut, gutxienez, Arantzazutik Oñatira. Ez zegoen bromarik orduan, goizero 7'30n jaitsi ohi nintzen Oñatira, hogeiren bat saka errebista eramanez postetxera, eta Fraile mordoska bat ere bai, orduan ez baitzegoen, orain dagoen kotxerik eta txoferik ere ez.

Arantzazuko komentuan 160 Fraile baginen orduan, eta Seminarioan beste horrenbeste, gero 300 inguru eta pasa ere izango ziren: horientzat denentzat 6-7 saski otzara handi ogiz beteak behar ziren, beste hainbat gauza aipatu gabe ere. Hospederiarako eta Gogartetxerako hainbeste fruta, okel-haragi eta arrain kaxa, edari, lejia, patata... zer ez? Eta hainbat enkargu eta mandatu!

Fraile etorri aurretik, nire baitan pentsatzen nuen, Fraile izan eta, denbora nola pasa eta zer egin ez nekiela ibili beharko nuela... Deskuido dexteak eduki nuen. Ba, jakin nahi baduzue, aburrimientua eta asperdura zer denik ez dakit. Alderantziz, beti denbora faltan nabil, egin nahi nituzkeen gauzak egiteko... Hemen ez daukagu ama edo arrebarik, edo neskamerik. Norberak egin behar du ohea, gela txukundu, eta horretara



rako astirik ezin hartu askotan, geure errezoak ere egin behar baititugu.

Esan behar dut, guraso fededunak izan genituela eta heziketa horrek asko lagundu didala nire bizitan. Azkeneko hamabi urteak etxe inguruan nabil: honenbesteko etxe batean beti baitago zerbait egiteko, eta lehen esan dudanez, otoitzeko denbora ere hartu behar dugu, lanerako gauza ez garenok batez ere.

Joxe Marik dioen "lantxo" horiek asko eta zenbatezinak, kuentatetik gora dira: portarian ordu asko, ia egunero saioaren bat, gaixoak zaintzen beste horrenbeste, bazterren bat zikinik ikusten badu bertan huraxe garbitzen hasiko da, etxe handi honetan,

komun eta beste, beti baitago zer txukundurik eta bestean axolagabekeriak zuzentzen ere, nahikoa lan... sendabelarrak biltzen ere saiatzen da, belarren urak behar dituenari prestatzen ere bai, beti umore ona dario, Goizuetako eta Hernani aldeko hainbat lagunzaharren pasadizo asko kontatu ohi dizkigu, barrettikien artean... eguneroko gure anai-arteko bizitza leunduz eta alaituz beti.



Horra gure Pagoaga baseritik ekarritako (edo etorritako) paotxa fresko iraunkorra, allobreak ihartuta gero eta nola, usai galanta berekin gordetzen duela? Halaxe hiru anaia hauen lurrin gozoa ere. Laurogei urtetan atsedean tarte askorik ez dute hartu: hori bai, baserritar jatorren pare, lanean bertan atsedean hartzen goiz ikasitakoak. Lana otoitzaren ukenduz goxatzen ere gurasoengandik dakitenak. Urteen pixuak mantxotu ditu: hiruek ere, larre motxeoak izaki, herren egin beharrean aurkitu dira. Baina ez dira ernegatuko berehalakoan: "*Jacob ere, Jaunare aurpegia ikusi nahiko borrokan gertatu omen zen herren...*".